# Etxebizitza bulegoa Mendaron

## Birgaikuntza - Alokairua - Energia

Hileko azken ostegunetan: 8:15-12:15 | Herriko Enparantza 10, behea (Uztargi ondoan)

Hitzordua hartzeko: 675873853 | etxebizitza@debegesa.eus

### Birgaikuntza

01

Herritarrei informazioa, orientazioa eta laguntza ematea etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko Etxebideren laguntzen eskabideak aurkeztean, bai eta beste laguntza osagarri batzuei buruzko informazioa ere (EEE, udal-laguntzak, besteak beste), auzo-komunitateei nahiz pertsona partikularrei zuzendutakoak.

### Alokairua

02

Etxebizitza hutsen alokairua bultzatzea, Eusko Jaurlaritzak eta udalek alokairua sustatzeko dituzten programak ezagutaraziz eta zabalduz, bai jabeei, bai balizko errentariei.

### Bonu Soziala

03

Gizarte-bonu elektrikoari eta termikoari buruzko informazioa eta aholkularitza, bai eta energia-horniduren (elektrizitatea, gasa...) fakturak eta tarifak optimizatzeari buruzkoa ere, energia-gastua murrizteko fakturak errazago uler daitezen.

### Energia

04

Energia berriztagarrien instalazioen eta birgaitze jasangarriko jardueren inguruan informatzea eta sentsibilizatzea, etxebizitza-eredu eraginkorragoa eta jasangarriagoa sustatuz. Debegesako Energia Bulegoaren lotura izango da.

Debegesa
Debabarreneko Garapen Agentzia

MENDARO